



HAL
open science

Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (II. dokumentu argitaragabeak)

Ekaitz Santazilia

► To cite this version:

Ekaitz Santazilia. Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (II. dokumentu argitaragabeak). *Fontes Linguae Vasconum : Studia et documenta*, 2022, 134, pp.471-490. 10.35462/flv134.7 . artxibo-03914542

HAL Id: artxibo-03914542

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-03914542>

Submitted on 30 Dec 2022

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.




Distributed under a Creative Commons Attribution - NonCommercial | 4.0 International License

Año LIV. urtea

134 - 2022

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Varia.

Irigarai familiaren funtsa
Nafarroako Errege
Artxibo Nagusian:
katalogoa

(II. dokumentu argitaragabeak)

Ekaitz Santazilia

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIV. urtea - N.º 134. zk. - 2022

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Zergatik panpox: flâneusearen arrastoan

Irati Majuelo Itoiz

281

Luzaideko oikonimiaren azterketa: etxe izengoitiak

Peio Kamino Kaminondo, Patxi Salaberri Zaratiegi

309

Euskarazko elkarkari iragangaitzak: lexikoak ala sintaktikoak?

Kristina Bilbao Hernandez

337

NOR-NORI-NORK *irrealisak* Gipuzkoan: *eginen* hedadura eta **ezan* adizkien zenbait berrikuntza

Olatz Leturiaga Angoitia

375

Euskararen jabeakuntza testuinguru soziolinguistiko ezberdinetan:

zer esaten diguten haurren testuek kasu gramatikalen erabilerari buruz

Maidier Huarte

415

Euskal zenbatzaileen komuntzadura-aldakortasuna Hegoaldeko testu zaharretan

Eukene Franco Landa

439

VARIA

Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (II. dokumentu argitaragabeak)

Ekaitz Santazilia

471

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /

Rules for the submission of originals

491

Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa

(II. dokumentu argitaragabeak)

El fondo de la familia Irigaray en el Archivo Real y General de Navarra: catálogo
(II. documentos no publicados)

Irigaray family's collection at the General and Royal Archive of Navarre: catalogue
(II. unpublished documents)

Ekaitz Santazilia

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)

ekaitz.santazilia@unavarra.es

<https://orcid.org/0000-0003-1158-821X>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv134.7>

Lan hau Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak diruz hornitutako «Monumenta Linguae Vasconum 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» proiektuaren barnean dago (PID2020-118445GB-I00).

LABURPENA

Berriki, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak Fermin Irigarai eta Angel Irigarai aita-semeen ondare dokumentala hartu du dohaintzan. Bi gizon hauek euskararen aldeko lanean nabarmendu ziren XX. mendean, eta funtsa horren isla da. Besteak beste, testu zaharrak, eskuizkribuak, artikulak, prentsa, aldizkariak, liburuak, zirriborroak eta ohar-kaierak aurki daitezke horretan, XVII. mendetik hasi eta, batez ere, XIX. eta XX. mendeak bitarte. Euskararen ikerketarako material baliagarria delakoan, *Fontes Linguae Vasconum* dokumentuen katalogoa argitaratu du, bi zatitan. Bigarren zati honetan dokumentu argitaragabeak bildu dira.

Gako hitzak: Irigarai funtsa; Nafarroako Errege Artxibo Nagusia; euskararen historia; katalogoa.

RESUMEN

Recientemente, el Archivo Real y General de Navarra ha recibido en donación el fondo documental de Fermin Irigaray y Angel Irigaray. Estos dos hombres (padre e hijo) destacaron en su labor en favor de la lengua vasca en el siglo XX, y el fondo no es sino el reflejo de ello. Entre otras cosas, incluye textos antiguos, manuscritos, artículos, prensa, revistas, libros, borradores y cuadernos de notas, desde el siglo XVII hasta los siglos XIX y XX principalmente. Tratándose de un material interesante para el estudio de la historia de la lengua vasca, *Fontes Linguae Vasconum* ha publicado el catálogo de la documentación, en dos partes. Esta segunda parte incluye los documentos no publicados.

Palabras clave: fondo Irigaray; Archivo Real y General de Navarra; historia del euskera; catálogo.

ABSTRACT

Recently, the Royal and General Archive of Navarra has received Fermin Irigaray's and Angel Irigaray's collection of documents as a donation. The collection reflects the outstanding contribution these two men (father and son) made in the 20th century in favour of the Basque language. Among others, it includes old texts, manuscripts, articles, press, journals, books, drafts, and notebooks, starting from the 17th century and, mostly to the 19th and 20th centuries. Since it is an interesting material to study the history of the Basque language, *Fontes Linguae Vasconum* has published the catalogue of the documentation in two parts. This second part includes unpublished documents.

Keywords: Irigaray collection; Royal and General Archive of Navarra; history of Basque; catalogue.

1. SARRERA. 2. FUNTSARI ETA KATALOGOARI BURUZ. 3. KATALOGOA.
4. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak (NEAN) Irigarai familiaren funtsa jaso zuen dohaintzan, orain ez aspaldi. Funtsak Fermin Irigarai Goizuetaren (1869-1949) eta haren seme Angel Irigarai Irigarai (1899-1983) euskalari nafarren dokumentazioa biltzen du¹. Euskararen ikerketarako dokumentazio baliagarria biltzen duenez gero, bilduma horren katalogoa *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarira ekarri dut. Aurreko zenbakian, 133.ean, argitaratutako dokumentuak zerrendatu nituen; aldizkariak, artikuluak eta liburuak batez ere (Santazilia, 2022). Oraingoan, argitaratu gabeko dokumentuak dakartzat, iruzkinez horniturik.

2. FUNTSARI ETA KATALOGOARI BURUZ

Funtsa, esan bezala, NEANen gordea dago, *Funts pertsonalak eta familia-funtsak* atalean. Aurrekoan argitaratutako materialak ekarri banituen, oraingoan berariaz eta osorik argitaratu ez diren dokumentuak bildu ditut hona. Eskuizkribuak (zaharrak eta berriak), prentsa, makinaz idatzitako testuak, fotokopiak, inprimatutako orriak, irigaraitarrek eskuz hartutako oharak, gerora argitaratutako artikuluen eskuizkribuak, mikrofilmak eta zenbait euskal testu zahar biltzen dira.

1 Bien biografia laburrak Santazilia (2022) lanean eman ditut. Orobat, argitaratutako artikuluez, ikus Camino (1992a, 1992b) eta Bidador (2016).

NEANeko teknikariek egindako, katalogazioari eta sailkapenari lotu natzaio. Nik huts batzuk zuzendu, datu batzuk osatu eta, zenbaitetan, dokumentuen iruzkinak gaineratu ditut, letrakera etzanean.

Erreferentziak dokumentuaren jatorrizko hizkuntzan katalogatu dira, eta horri eutsi diot. Iruzkinak, ordea, euskaraz eman ditut.

3. KATALOGOA

1. KAXA (135895)

Kaxa honen 1., 2. eta 3. karpetatxoetan sermoiak daude nagusiki. Gehienak, ez denak, XIX. mende hasieran Zildoizko Perutzenea etxean sortutako Juan Jose Urtasun Untzuko apezak idatziak dira. Artxiboan neronek emandako katalogazio-zenbaketari eutsi diote. Une honetan martxan da prediku horien transkripzioa, eta horiei buruz orain arte dakigun guztia Santazilia (prentsan) lanean irakur daiteke.

Zenbatu gabeko karpetatxoa

S/sig Página impresa (restaurada) con texto de un posible catecismo en euskera c. 1600. Junto a ella, 7 notas de transcripción, datación y comentarios. *Nafarroan (eta Hego Euskal Herrian) euskaraz inprimatutako testurik zaharrena izan daiteke. XVI. mende hondarreko dotrina baten zatiak dirudite, Nafarroako euskaraz eta gaztelaniaz idatziak. Irigarai berak eman zuen argitara (Irigarai, 1963).*

1. karpetatxoa

IR-001	«Doctrina Cristiana» (5 folios)
IR-002	30 de maio de 1820 (1 folio)
IR-003	Dominica 3. ^a de quaresma (4 folios)
IR-004	5. ^o domingo de quaresma (3 folios)
IR-005	Domingo 3. ^o de quaresma (4 folios)
IR-006	Dominica 5. ^a de quaresma o de pasion (3 folios)
IR-007	Que viene a ser el sacrificio de la missa... (3 folios)
IR-008	Dominica 5. ^a de quaresma (2 folios)
IR-009	Otro exordio para la Dominica 4. ^a de quaresma (4 folios)
IR-010	Dominica 4. ^a quadragesima (3 folios)
IR-011	Dominica 3. ^a de quaresma (2 folios)
IR-012	Dominica 5. ^a quadragesima (3 folios)
IR-013	Dominica passionis (3 folios)
IR-014	Sobre la festividad a San Juan Baptista (2 folios)
IR-015	Explicacion del 5. ^o mandamiento del decalogo (2 folios)
IR-016	Dominica 2. ^a de adventus (3 folios)

- IR-017 Del carácter del Christiano. Puede servir para la dominica 3.^a de adviento (2 folios)
- IR-018 Dominica septuagesima (3 folios)
- IR-019 Sermon del 1.^o domingo de Adviento (2 folios)
- IR-020 Del juicio universal (4 folios)
- IR-021 Erunt signa in sole... (3 folios y una nota)
- IR-022 Dominica 2.^a de adventus (3 folios)
- IR-023 Consideracion sobre el nacimiento del hijo de Dios. (2 folios)
- IR-024 Platica a la Dominica 1.^a de Adviento (2 folios)
- IR-025 Para el dia de Animas: una exortacion o insinuacion en favor de ellas (1, 5 folios)
- IR-026 Dominica 3.^a Adviento (2 folios)
- IR-027 De la gloria (2 folios)
- IR-028 Para el domingo 2.^o de Adviento (3 folios)
- IR-029 Impreso expedido por la Policía Militar francesa en 1811 (2 folios en pliego)
- IR-030 Explecacion de los diezmos y primicias (1 folio)
- IR-031 Dominica despues de Pentecostes hasta el adviento (1 folio)
- IR-032 Sobre el quinto mandamiento de la lei a Dios (3 folios)
- IR-033 Salmo 113 (1 folio)
- IR-034 Honora patrem tuum (2 folios)
- IR-035 Eman izanducioteraric (1 cuartilla)
- IR-036 Espericien progacen gauden (1 cuartilla)
- IR-037 Para el domingo de Pasion (1 cuartilla)
- IR-038 -quideak artan (falta el principio) (1 folio)
- IR-039 Para el domingo 1.^o de Adviento (2 folios)
- IR-040 De la dominica ultima post pentecostes (2 folios)
- IR-041 Desiderio desideravi (2 folios)
- IR-042 Zazpigarren mandamentuaren gañeco doctriña (3 folios)
- IR-043 Para el 2.^o domingo de quaresma. Jesusen leguea ta legueco nequeac (1 folio)
- IR-044 Para el 4.^o domingo de quaresma. Del modo de hacer la confesion general (1 folio)
- IR-045 Para la resurreccion (1 folio y una cuartilla)
- IR-046 Generatio qui sibi... (3 cuartillas)
- IR-047 Seigarren mandamentuaren gañeco dotriña (1 folio y dos cuartillas)
- IR-048 Eztugu gure Jaunac (2 folios)
- IR-049 De la obligacion de los padres para con los hijos (1 folio y 1 cuartilla)
- IR-050 Dominica 1.^a de Quaresma (1 folio y una cuartilla)
- IR-051 Para el domingo 1.^o de quaresma (1 folio y una cuartilla)
- IR-052 Dominica septuagesima (4 folios)
- IR-053 Dominica 2.^a de quaresma (2 folios y una cuartilla)
- IR-054 Ortas landara (1 cuartilla)
- IR-055 Dominica 1.^a quadragesima (3 folios)
- IR-056 Sobre la penitencia y confesion (3 folios)
- IR-057 De la dominica de Pentecostes (2 folios en pliego)
- IR-058 -tu bearden (8 folios)

- IR-059 Ara nola espiritu (1 folio)
 IR-060 Egorum pastor bonus (1 folio)
 IR-061 Responden Jesus dixit (1 folios)
 IR-062 Para el domingo 24 despues de Pentecostes (2 folios)
 IR-063 De la dominia (sic) 15 post pentecostem (3 folios)
 IR-064 Platica sobre el bautismo y confirmacion (2 folios)
 IR-065 De la preparacion para comulgar (2 folios)
 IR-066 Venite ad me (3 folios)
 IR-067 Sobre la sovervia y remedios de vencerla (3 folios)
 IR-068 Ezta mundu ontan (2 folios)
 IR-069 Dominica quincuagesima (3 folios)
 IR-070 De la dominica 17 post pentecostem (2 folios)
 IR-071 De la dominica ultima post Pentecostem (3 folios)
 IR-072 Ygues eguinzaçu (1 cuartilla)
 IR-073 Para el dia de la ciruncision del Señor (2 folios)
 IR-074 Del juicio universal. Lo que le precedera (3 folios)
 IR-075 Dominica 3.^a quadragesima. De crudelissima flagellatione Christi... (3 folios)
 IR-076 Domingo 5 de Quaresma (2 folios)
 IR-077 Para la Dominica 3.^a de quaresma (2 folios)
 IR-078 Non potentis Deo (2 folios)
 IR-079 Dominica XXI post pentecostem. Sobre el perdon de los enemigos (3 folios)
 IR-080 Para la Minerva. Sobre los bienes que trae las visitas del Santo al altar (2 folios)
 IR-081 Medio para andar en el camino de Dios (3 folios)
 IR-082 Domingo XXIII post pentecostem (2 folios y cuartilla)

2. karpetatxoa

- DUIRE-001 Jangoicoaren legueco mandamentuen gañeco explicacioa... (12 folios)
 DUIRE-002 Para una Minerva (1 folio)
 DUIRE-003 Sobre el dolor de los pecados (3 folios)
 DUIRE-004 De la dominica 23 post pentecostem (2 folios)
 DUIRE-005 Dominica 5 post pascua. Platicas o reflexiones sobre la necesidad... (2 folios)
 DUIRE-006 Exhortacion a los feligreses en el domingo de QuinquagEsima... (3 folios)
 DUIRE-007 Et ego dico vobis (4 folios)
 DUIRC-001 Dominica 14 post Pentecostes (2 folios)
 DUIRC-002 Gaur artu dut
 DUIRC-003 Doctrina de las maldiciones (2 folios)
 DUIRC-004 Para la Dominica 2.^a de Quadregesima (2 folios)
 DUIRC-005 Dominia (sic) XVII post pentecostem (3 folios)
 DUIRC-006 -tas irurac (falta el principio) (2 folios)
 DUIRC-007 Quis putas est in regno Glorum... (4 folios)
 DUIRC-008 Domingo 1.^o de Quaresma. Parabola del hijo prodigo (3 folios)

- DUIRC-009 Dominica 2.^a quadragesimae. De alapa Cristi Domini in domo Caiphae (3 folios)
 DUIRC-010 Domingo 2. de Quadragesima (3 folios)
 DUIRC-011 Dominica 15.^a post Pentecostem (2 folios)
 DUIRC-012 De la Dominica 3.^a de Quaresma (3 folios)
 DUIRC-013 Dominica 4.^a Adventus (2 folios)
 DUIRC-014 Dominica 2 adventus (6 folios)
 DUIRC-015 Dominica 2.^a Adventus. Sobre la concepción de la Virgen (2 folios)
 DUIRC-016 Domingo 21 después de Pentecostes

3. karpetatxoa

- IRCI-001 Domingo 4. de Quaresma (3 folios y una nota)
 IRCI-002 O cen contue emateco (nota)
 IRCI-003 Peligros beteric dago (nota)
 IRCI-004 Dominica 4.^a de Quaresma (4 folios)
 IRCI-005 Domingo 2.^o de Quaresma (3 folios)
 IRCI-006 Para el domingo 1.^o de quaresma (5 folios)
 IRCI-007 Jaingoicoaren escuetaco obrac (1 folio)
- S/sig 1 «Gobernadore Jaunac eracutsi du...» (3 folios). *Lesakako hiru bando eskuizkribatu, koleraren kontra hartu beharreko neurriez. Horietako bi oso antzekoak dira. XIX. mendea. Bat bederen argitaratua dago (Irigarai, 1933).*
- S/sig 2 «Cánticos en bascuenz para Viacrucis» de Bernardino Echegaray (librito). *Kardaberatzen Jesus Maria eta Joseren Debozioa liburuan «Amorezko ta dolorezko Jesu-Kristoren pausoak» ataleko bertsoen oso antzekoa. XIX.-XX. m.?*
- S/sig 3 Libro de oraciones? de Perutxena etxea (Zildotz, Ezkabarte). *Gurutzebide bat dakar, eta otoitzak, besteak beste. Mathias Orrio eta Isidoro Diez de Ultzurrun Zildoizko apezzen sinadurak ageri dira. Juan Manuel Urtasun Zildoizko apezaren letrakera ere egon daiteke. XVIII.-XIX. m.*
- S/sig 4 «Doctrina Christianaren declaraioa (sic), galdetcen eta erantzuten dala» (liburutxoa). *Gipuzkoako eta Nafarroako hizkeretan. Lehen zatia Irazustaren dotrinatik aterea da. XVIII.-XIX. m.*
- S/sig 5 «San Joseph Gloriosoaren bedrazi urruna» (librito). *Nafarroako euskara. Otoitzak eta bertsoak dakartza. XVIII.-XIX. m.*
- S/sig 6 «Cristoen Doctrinaren esplicacioa» (Javier Loperena) (librito). *Aezkoako mintzoa. Garraldako apez Javier Loperena orbaitzetarrak Bonaparteren-dako itzulitako doctrina eta hau berbera dira (Camino, 2012), baina honek beste letrakera bat du eta zaharxeagoa dirudi. XIX. m.*
- S/sig 7 «O gure Jesus maitagarria!» (2 folio). *Otoitzak. Erdialdeko hizkera. XIX. m.*
- S/sig 8 Notas manuscritas de diversos tamaños (13). *A. Irigarairen oharra.*
- S/sig 9 Manuscrito con versos y canciones en euskera y francés (libro 17x11 cms). *Kantu kaier bat, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko mintzoetan. Erdia baino gehiago frantsesez. Transkripzioa egina dut, eta ikerketa bidean. XVIII.-XIX. m.*

2. KAXA (135896)

1. karpetatxoa


1. Cuadernillo 155 x 110 mm. Con textos manuscritos en francés.
2. Cuadernillo 155 x 110 mm. «Colegio seráfico capuchino» con poesías en castellano.
A. Irigarairen sinadura darama, eta 1913ko azaroaren 13ko data, Lekarozen.
3. Cuadernillo 90 x 150 mm. Con vocabulario alemán-castellano (4 notas sueltas). *A. Irigarairena.*
4. Carpeta con poesías en euskera (manuscritas, mecanografiadas y recortes de prensa). *Handik eta hemendik bildutako euskal kantuak daude; besteak beste, Mañarikorenak eta Borddelenak, Eusebio Erkiagarenak, Herrian edo Euskal Esnalean argitaratuak, eta beste. Bizkaierazko testu bat ere badago (XX. m), bai eta ere Lizardiren On Kixoteren itzulpen bat mekanografiaturik.*
5. Nota con relación de casas de Burgi, Artanga y otras localidades (11). *A. Irigarairen letrakera da nagusiki.*
6. Portafolio con 84 textos literarios en prosa en euskera (92 folios). *Enrike Zubiri Manezaundik han eta hemen argitaratutako testuen bilduma. A. Irigaraik bilduak eta mekanografiatuak.*

1. karpetatxoa

7. Fotocopias del «Catecismo que perteneció a Martín Felipe Lecuberri, abuelo de nuestra abuela. Data de 22 de junio 1827». *Lekuberrik, dokumentuan berean, Zugarramurdiko Malastakobordakoa dela dio.*

2. karpetatxoa

8. Notas manuscritas y mecanografiadas sobre toponimia, oiconimia y nombres de plantas de diversas localidades (Pamplona, Lerín, Obanos, Zirauki, Egozkue, Oteiza de la Solana, Villatuerta, Muru-Astrain, Santesteban, etc.) (71 de diversos tamaños).
9. Cuadernillo impreso con PIARRES IBARRART KOBLAK (Coplas de Piarres de Ibarrrart) editada en Baiona en 1948. *Katalogoaren 1. zatian aipatua (Santazilia, 2022). Otañoren bertso inprimatuak ere badakartza.*
10. Borradores mecanografiados de un método de aprendizaje del euskera (70 de diversos tamaños). *Aezkoako eta Zaraitzko hizkeretan. Hauetako batzuk, sergur aski, A. Irigaraik Diario de Navarraren euskarazko orrian argitaratutakoak dira. Azkuek ibar horietan bildutako ipuinak ere badaude (Azkue, 1928), eta Euskalerrriaren Yakintzatik atereak ere bai.*
11. Sobre marrón «Euskal paperak» con textos literarios mecanografiados (18 folios). *Oscar Wilderen testu euskaratuak (Mitxelenak eginak eta Eganen atereak?). Zeruko Argiaren sorrerari buruzko testutxoa, 1962ko Herria astekariaren zenbaki batetik ateratako pasarte zenbait.*



1. irudia. *San Joseph Gloriosoaren bedrazi urruna* (NEAN, Irigarai funtsa, 135895 kaxa, 3. karpetatxoa, S/sig 5).

12. Relación de obras en euskera que se encuentran en el monasterio de Roncesvalles (6 cuartillas). *Orreagako artxiboaren katalogotik aterea. XVIII. eta XIX. mendeetako obrak aipatzen dira, baita Geroren ale bat ere.*
13. Documentos fotocopiados sobre la familia Irigaray Goizueta.
14. Separata impresa de «Ibañetako mendietatik» de Paulo Fermín Irigaray (1950). *Katalogoaren 1. zatian aipatua (Santazilia, 2022).*
15. Textos mecanografiados con artículos literarios en euskera (31 folios) Acompañan notas manuscritas sobre dichos y refranes navarros (17). *Esamoldeak ere bildu dira. Larrekoren lan argitaratuen bertsio mekanografiatuak daude; «Nafarroako euskal esakerak» edo «Erronkariko uskara», besteak beste.*
16. Libreta con «Euskarazko esakerak» (expresiones y vocabulario) obtenido en varios pueblos. *Larrekorena.*
17. Pliego manuscrito con las cartas del Padre Isla describiendo las fiestas del Corpus Christi en Bolonia. Parece de principios del siglo XIX. Firmada por D. Felipe Manzano (muerto en 1813). *Gaztelaniaz.*
18. Ejemplar del Diario de Madrid de 3 de diciembre de 1790.
19. Cuadernillo de 1926 reutilizado con notas sobre acontecimientos de la Guerra Civil de 1936-1939 (Batallones de trabajo forzado). *Gaztelaniaz.*
20. Notas manuscritas sobre Núñez de Berty. *Gaztelaniaz.*
21. Notas manuscritas (22) con un texto literarios en euskera aprovechando impreso de notas del Colegio de Lekaroz sobre Luis M. Irigaray. *Aingeru eta Luis M. Irigarairen noten inprimakiak dira, 1910-1915. urte ingurukoak. Larrekoren «Eskualdun biozduna Mexican» lanaren eskuizkribua dago ifrentzuan.*
22. Notas sueltas de distintos tamaños con anotaciones manuscritas (6). *A. Irigarairenak.*

4. karpetatxoa

23. Recortes de artículos (17) publicados en prensa, la mayoría con el nombre de Larreko. Euskara y castellano.
24. Cuadernillo manuscrito (1) en euskera «Aitaren euskar lan batzu». *Larrekoren eskuizkribuak eta artikuluak.*
25. Cuadernillo manuscrito (1) en euskera «Emakumeen oraiko gizondu bearra». *Larrekorena. Ik. 3. kaxa, 2. karpetatxoa, 3. zk.; 3. kaxa, 2. karpetatxoa. 9. zk.; 3. kaxa, 2. karpetatxoa, 15. zk.*
26. Notas sueltas manuscritas en euskera. Autobiográficas, oraciones, toponimia, cartas, etc. (19 de diversos tamaños). *Hitz-zerrenda bat dago, Napartarran ateratako artikuluen eskuizkribuak, Baztan-batzoki'ko ereserkia, Larrekok euskalduntzeko bidea nola egin zuen zaltzen duen testua, Azkueren gutuna 1927an euskaltzain urgazleei hiztegirako ekarpenak egin ditzaten, eta beste.*
27. Texto manuscrito «Bigarren zati nahasi» (9 folios). *Larrekoren eskuizkribua Bigarren Mundu Gerraz, euskaraz eta prostatako ebakuntzaz besteak beste.*
28. Texto manuscrito «Zer guisaz beartugun egin euskarazko lanak» (10 cuartillas). *Eta «Gan ziren denborak berriz?» Larreko neologismoez, gramatika eza-gutzeaz, eta apezzen eta maisuen zereginaz ari zaigu, besteak beste.*

29. Manuscrito «Gutun egileri oarpentxo bat» (4 cuartillas). *Beste norbaitek -kor eta -koi atzizkiei buruz txukun idatzitakoa jaso du Larrekok.*
30. Textos en euskera mecanografiados (65 cuartillas). Larreko, *Gerra Zibilaz. Gerla urte Gezur Urte izenpean argitaratu ziren* (Larreko, 1993). *Ik. 2. kaxa, 5. karpetatxoa, 36. zk.; 3. kaxa, 1. karpetatxoa, 1. zk.*
31. Cuaderno en formato cuartilla con caricaturas y textos manuscritos comenzando con «Andere Cornelia» (89 páginas). *Cervantesen lanaren itzulpena, Larrekok egina. Koldo Mitxelena Kulturunean Larrekoren beste eskuizkribu bat dago, izen berbera duena* (Eskuizkribuak, 348639). *Ik. 3. kaxa, 5. karpetatxoa, 53. zk.*

5. karpetatxoa

32. Texto en castellano manuscrito «Centenario y centenario del año XII» (3 páginas). *Navas de Tolosako guduari buruz.*
33. Texto en euskera manuscrito «¡Nere bihozminaren andia!» (4 páginas). Larreko, *euskararen galerari buruz. Leonen Jesu-Kristoren imitazioa lanetik kopiatutako pasarte bat dakar.*
34. Recortes de periódicos con artículos impresos de Larreko.
35. Fotocopias de la correspondencia mantenida por Angel Irigarai con eruditos como Lafitte, ordenada cronológicamente en tres bloques: 1933-1936, 1947-1964 y 1966-1975. *Luis M. Irigaraik Oihanbururi igorri gutun baten kopia ere badago, Larrekoren heriotzaren berri emanaz. Manezaundik Larrekorri igorri gutun bat ere bai (1939-08-12), Luzaiden gaztelania nola sartzen ari den kontatuz, baita Larrekoren ihardespena ere. Gainerako gutunak Laffitteri zuzenduak dira denak. Euskera agerkarian argitaratu ziren* (Xarritton et al., 2005).
36. Texto en euskera (versión manuscrita y última versión mecanografiada -75 cuartillas) con el título «Gerla urte, gezur urte» sobre la Guerra Civil. Larrekoren. *Gerla urte Gezur urte izenpean argitaratu ziren* (Larreko, 1993). *Ik. 2. kaxa, 4. karpetatxoa, 30. zk.; 3. kaxa, 1. karpetatxoa, 1. zk.*

3. KAXA (135897)

1. karpetatxoa

1. Cuadernillos de distintos grosores con memorias y reflexiones de Larreko en euskera sobre la Guerra Civil y posguerra (16 cuadernillos). *Gerla urte Gezur urte izenpean argitaratu ziren* (Larreko, 1993). *Ik. 2. kaxa, 4. karpetatxoa 30. zk.; 2. kaxa, 5. karpetatxoa 36. zk.*

2. karpetatxoa

2. Libreta con vocabulario botánico euskera-latín.
3. Libreta con refranes y sentencias manuscritas (33 hojas). *Larrekorenak. Refranes y Sentencias bildumatik eta Oihenarten bildumatik atereak. Gainera,*

- Larrekoren *testu bat dago ifrentzuan, gizonen eta emakumeen*. Ik. 2. kaxa, 4. karpetatxoa. 25. zk.; 3. kaxa, 2. karpetatxoa. 9. zk.; 3. kaxa, 2. karpetatxoa, 15. zk.
4. Cuartillas «Zortzitik zortzirat» (5) manuscritas para publicar. Larrekorena.
 5. Libreta «Izarretakoa» (8) manuscritas. Larrekoren *testua*.
 6. Libreta manuscrita «Gutunaren eguna» (16+3). Larrekorena. Ik. *Camino* (1992a).
 7. Octavillas con refranes y sentencias manuscritas (39). Larrekok Refranes y Sentencias *bildumatik eta Oihenarten bildumatik atereak, besteak beste*. Ik. 3. kaxa, 2. karpetatxoa, 3. zk.
 8. Libreta manuscrita con expresiones en euskera baztanés (19). *Ez soilik Baztangoak*. Larrekok *handik eta hemendik ateratako erranairuak*.
 9. Cuartillas manuscritas «Emakumea gizondu naiez». Larrekorena. Ik. 2. kaxa, 4. karpetatxoa. 25. zk.; 3. kaxa, 2. karpetatxoa, 3. zk.; 3. kaxa, 2. karpetatxoa, 15. zk.
 10. Cuartillas manuscritas «Por el euskera. Axular y Mendiburu» (6). Larrekorena.
 11. Cuartillas manuscritas «Euskar saila» (16). Larrekok *Etxegarairi idatzia, izandako eztabaida baten inguruan*. Ondoren *beste testu baten zatia dago*. Ik. 3. kaxa, 4. karpetatxoa, 59. zk.
 12. Cuartillas manuscritas «Jainkoak arrats on dizuela» (9). Larreko Eskualdunaz, *Abadiatz, Zaldubiz...*
 13. Cuartillas manuscritas grapadas «Orreaga: Nafarroako euskara irakurgaietan» (8). *Campioneek hainbat hizkerataraz itzularazitako baladaz, Nafarroako euskal testu idatziez, eta bestez*. Ik. *hurrengoa*.
 14. Cuartillas manuscritas grapadas «Orreaga: El euskera de Navarra escrito» (6). *Aurrekoaren gaztelaniazko bertsioa*.
 15. Cuartillas manuscritas grapadas «Jaungoikoari esker» (25). Larreko Emakumea gizondu nahiari buruz. Ik. 2. kaxa, 4. karpetatxoa. 25. zk.; 3. kaxa, 2. karpetatxoa, 3. zk.; 3. kaxa, 2. karpetatxoa, 9. zk.
 16. Cuartillas manuscritas «De cómo España conquistó a Navarra y la retuvo» por Wilhelm Gottlieb Soldan. Leipzig 1849 (58). *Aipatu lan horren alemanetiko itzulpena gaztelaniara*. *Aski ezezaguna izna baita lan hori gurean, berriki Monteanok (2022) itzulpen hau argitaratu eta iruzkindu du*.
 17. Cuartillas impresas con canciones euskara (1). *Erlijosok. Erdialdeko euskara*. XX. m.
 18. Cuartillas manuscritas «Itza zaarrak bildu eta biztu» (8). *Ez da Larrekorena*. «*Urgaitzi*», eta «*urriki*» bezalako hitzak *berpizteaz, bustiduraren funtzioaz eta bestez ari da, eta hainbat etimologia dakartza*. *Napartarra agerkarian Nabarzale sinatzen zuen batek izenburu bereko zenbait artikulua argitaratu zituen 1916an, eta Larrekorekin aritu zen galde-ihardespentetan*. *Bereak dirateke eskuizkribuok*.
 19. Cuadernillo mecanografiado «Larreko euskaraz ikasten». Larreko, *euskara nola ikasi zuen kontatzen, eta euskararen egoeraz*.
 20. Cuartillas manuscritas «Gogo ariketak Billaban ortarako etxean». Larrekorena.
 21. Carpetilla con cuartillas manuscritas «Larrekoren Baztango biltokikoeri apeech atsotitzak». Larrekoren *artikuluak euskararen egoerari buruz, euskaraz aritu beharri buruz, kontakizun irrigarriak, Baztango batzokian eman*

hitzaldia, eritasun kutsakorrei buruzko artikulua, haurrendako ikasgaiak, «Navarra ez da nafarra» iritzi artikuluren eskuizkribua.

22. Carta mecanografiada a Soubelet. *Euskara garbia erabiltzeaz eta txukun ikasteaz. Argitaratua (Camino, 1992a).*
23. Texto mecanografiado «Aldizkari honen lankideeri oharrak». *Besteak beste, Egan aldizkariak onartu eta argitaratu beharreko lanaz eta euskara batua erabili beharraz.*
24. Cuartillas manuscritas sueltas (8). *Euskaltzaindiaren barne araudiaren zati bat, «Las próximas fiestas anti-vascas de Lekumberri» idazkia Lekunberrin festetan makil-dantza eta ttun-ttuna ez egoteari buruz, eta beste.*

3. karpetatxoa

25. Carta al director de «Destino» (22/11/1976). *A. Irigarai Gorka Knörrek esandakoen kontra (1976).*
26. Cuartillas manuscritas sueltas con anotaciones de vocabulario y poesía en euskera (8). *A. Irigarairenak. Mitologiak, Álvaro Manso de Zuñigaren artikulua bati egindako oharrak, etimologia batzuk, Zuberoako koplak batzuk kopturik, hiztegitxo bat, Alboka koplak, RSBAPen gutun bat, Euskaltzaindiaren gutun bat, Aizkibeli buruzko oharrak.*
27. Cuartillas manuscritas sueltas con notas sobre obras lingüísticas (3). *Mariano Mendigatxaren aitaren heriotzaz Karlisten eskutan, besteak beste. Ik. 3. kaxa, 3. karpetatxoa, 30. zk.; 3. kaxa, 3. karpetatxoa, 43. zk.*
28. Cuartillas manuscritas con notas sobre bibliografía y documentación en la Biblioteca Nacional de Francia (12). *Asko Zuberoakoak. Kantuak, pastoralak, xikitoak...*
29. Cuartillas manuscritas con anotaciones sintácticas euskera-castellano (2). *Esamoldeak eta horien erdal itzulpena. Boudaren (1973) lanetik hain segur.*
30. Cuartillas manuscritas con borradores de artículos (6). *Azkuiek Mendigatxari igorri gutunak Diaz de Ceriok aurkitu izanaz. Ik. 3. kaxa, 3. karpetatxoa, 27. zk.; 3. kaxa, 3. karpetatxoa, 43. zk.*
31. Notas de tamaño irregular sobre vascólogos (4). *Euskal autore klasiko batzuez: Leizarraga, Bela, Oihenart, Bonaparte, Campion...*
32. Documentos referidos a Euskaltzaindia (13). *Akademikoen zerrenda eta helbideak, 1964an egindako ekitaldi baten programa Agustin Zubikarairen obrarekin, J. M. Satrustegik egin Euskal Izendegiari buruzko txostena (1976), oharrak batasunaz eta ortografiak, Iparraldeko euskaltzainen zerrenda, Villasantek euskaltzainei igorri txostena Euskaltzaindiaren egoeraz eta proiektuez (1975), RSBAPen ekitaldi baten programa.*
33. Cuartillas mecanografiadas con poemas (6). *Koplak eta bertsoak dira, Nafarroa Behereko mintzoan. Batzuk Mendiaguerenak dira.*
34. Folios mecanografiados sobre la labor del Príncipe Bonaparte (4).
35. Borrador manuscrito sobre dos cuentos de brujería poco conocidos (2). *Cerquandek bilduak. Batez ere Harischelhar Etxahunen bertsoak argitaratu izanaz ari da. Lanaren erreseina modukoa.*

36. Folios mecanografiados con el «Informe sobre la situación del vascuence en Navarra considerada bajo un punto de vista pastoral» (8). *1971ko datuak euskararen egoeraz eta euskarak parroketan duen lekuaz, herriz herri eta ibarrez ibar.*
37. «Informes procedentes, en parte, de la sección pro-euskera de “Príncipe de Viana”» (3 folios mecanografiados con notas y ocho cuartillas con el borrador manuscrito). *Euskararen gibelatzeaz, Blas Fagoagak Nafarroako herrietan egin inkesta soziolinguistikoaz, 1904ko egoerarekin alderatuta, herriz herri eta ibarrez ibar* (1971).
38. «Informe semi-confidencial sobre la secretaría del obispado de Pamplona en materia de promoción del euskera» (3 cuartillas). *Elizak euskararen alde egin dezan, apez euskaldunak jartzeaz, eta bestelako proposamenez.*
39. Notas manuscritas de distintos tamaños sobre la situación de la predicación en euskera en distintos valles y localidades navarras (7).
40. Notas manuscritas sobre Fontes Linguae Vasconum y toponimia medieval (2 folios y una cuartilla). *Erdi Aroko onomastika.*
41. Notas manuscritas sobre «Tres cartas vascas de 1622» (3). *Satrustegiren* (1979) *lanetiko oharrak.*
42. Borrador del artículo enviado a Diario de Navarra el 2/12/1975 sobre «Un proceso de brujería en Burgui» (4 folios). *Idoateren* (1975) *artikuluari iruzkinak.*
43. Cuartillas manuscritas con notas sobre el «Manuscrito de Mendigacha» (5). *Mendigatzaren testutik ateratako esamoldeak Erronkaribarko euskararen. Ik. 3. kaxa, 3. karpetatxoa, 27. zk.; 3. kaxa, 3. karpetatxoa, 30. zk.*
44. Recortes de prensa con diversos artículos.
45. Borrador manuscrito y mecanografiado de «Jende-tarteko osasungarriak» (2 folios). *Larrekorena. Argitaratua* (Camino, 1992a).

4. karpetatxoa

46. Cuartillas manuscritas con el título «Cuestión fundamental» (3). *Larrekorena. Abortuaz. gaztelaniaz.*
47. Cuartillas manuscritas con el título «VIII. ¡Ederragorik idatzi ote zituen!» (4). *Larrekorena. Testu erlijiosoa.*
48. Cuartillas manuscritas con el título «Gogoetak, euskaraz erranak» (6). *Larrekorena. Esamoldeak, hiztegia.*
49. Cuartillas manuscritas y mecanografiadas con el título «Erran zaarrak» (6). *Larrekok Eskualdun Almanakatik atereak. Larrekoren beste testu bat dago Baztanen Urtatsetan umeek etxez etxe kantatzen dituzten doinuez.*
50. Cuartillas manuscritas con el título «Otsailla» (11). *Larrekoren testu erlijiosoa.*
51. Recortes de prensa sobre «Euskar eguna» en diversas localidades y artículos de Larreko.
52. Notas manuscritas en distintos tamaños sobre artículos, vocabulario y expresiones referidas al euskera (9). *Eskualduna agerkarira Baztandik igorritako testu baten eskuzko kopia, Larrekok egina* (1913); *Larrekok idatzi testu erlijiosok gaztelaniaz, Larrekok egindako gipuzkerazko eta bizkaierazko hitz zerrendatxoa, eta esamolde batzuk.*

Gobernadore Jaunac eracutsidu dese
 quia Ayuntamientoari iche quiciya
 chunarteco, gutiencan errihuac: aguin
 za berala ^{cumplite} ~~orden~~ irandu dira aundiya
 quan desequac: orrengatic bada, Chu
 nituco diturte, oranic equin eriturte
 nac, eta Ayuntamientoac iranendu
 gustu aundi bait arisatzea Goberna
 dore Jaunari, berala eta gogoz cum
 plitu direla aren desequac, eta ya
 aren ^{ordenac} ~~desequac~~ eracustenduten berala
 daqola Lesacaco erni quiciya.
 Lesacarren honora daqo baya
 interesatua eta baldin bada inor
 equin nai erituenic, Ayuntamiento
 Arquituco da obligatua Gobernadore
 Jaunari parte ematera, cein diren
 oriyec. Esperatzen du bada Ayunta
 mentu onic eritutela orrelaco casuan paratuco

2. irudia. Lesakako bandoa, koleraren kontra hartu beharreko neurriez urruna (NEAN, Irigarai funtsa, 135895 kaxa, 3. karpetatxoa, S/sig 1).

5. karpetatxoa

53. Dos textos mecanografiados de la obra «Andere Cornelia» (101 folios). *Ik 2. kaxa, 4. karpetatxoa, 31. zk.*
54. Cuartillas manuscritas con el título «Misiotara bai, baino ¿norata?» (8). *Larrekoaren testu erlijiosoa.*
55. Carta manuscrita de José Luis Lequerica (Madrid 06/07/1930). *Larrekori, Gaztelaniaz.*
56. Cuartillas manuscritas en euskera sobre feminismo y juramento cristiano (2). *Larrekoarena.*
57. Cuartillas manuscritas con el título «Naparroako erranerak» (30). *Larrekoarena. Argitaratua (Larreko, 1926).*
58. Cuartillas manuscritas con el título «Oarmenak, garbitasunerako bideak» (3). *Axularren zenbait pasarte, Larrekok atereak.*
59. Cuartillas manuscritas con el título «Gai beretik berri» (4). *Etxegarairi erantzuna, izandako eztabaida baten inguruan. Ik. 3. kaxa, 2. karpetatxoa, 11. zk.*
60. Cuartillas manuscritas rasgadas con oraciones en euskera (2).
61. Cuartillas manuscritas con el título «Nori berea oberena», «Por el euskera», «Gaiak bersolariarentzat», «Linguae Vasconum Primitiae», «Izurrite loia» y «Lindachiquia» (6). *Larrekoarenak.*
62. Cuartillas manuscritas con el título «Lakoizketa apez jauna eta euskara» (23). *1923ko euskal egunetan Donezteben egindako hitzaldia. Argitaratua (Irigarai, 1926).*
63. Cuartillas manuscritas con el título «Euskar-esakera ederrenetarik xorta» (14). *Larrekoarena.*
64. Cuartillas manuscritas rasgadas con el título «Irakur-gaiak» (43 fragmentos). *Larrekoarena. Euskara ikasteko lanabesak.*
65. Cuartillas manuscritas con el título «Biotza bete» (7). *Larrekoarena. Abertzaletasunaz, euskaltzaletasunaz Iruñean.*
66. Cuartillas manuscritas con el título «Eskuara» (3). *Toponimia, etimologiak. Larrekoarena.*

4. KAXA (135898)

1. karpetatxoa

1. Recortes de prensa 1975-1978 (páginas de «Nafar-Izkuntzan orria», en general). *Diario de Navarraren euskarazko orria, hamabostean behin argitaratua.*

2. karpetatxoa

2. Libritos-agenda con textos manuscritos diversos (vocabulario, expresiones, artículos) de «Larreko» (16). *Larrekoarenak. Lafitteren gutun bat. Esamoldeak ere badaude, eta euskal hitzen azalpenak. Autore klasikoetatik ateratako pasarteak, adizkitegi bat, K'tar K delako batek Larrekori idatzitako postalak 1917an, Hijartik, Jondoni Saleskoaren errankiak, eta beste.*

1

Bartan - Batzoki'ko Ereserkia

Ortzean agerturik
 iguzki adar
 aditu da Bartan'en
 iintzi arkarai:

"jaura! ernatu! jaiki!
 eneko bartandara!
 jji gora Pami goikoa ta
 jji gora Lege-Lara!!!"

2

22 kilnak eskuan
 gande bartandariak
 aberiari gelder:
 zer nai duen Amek?
 "Ama, ez negar egin
 Bartan'go semeak
 izanen gatzarriekin
 semeak zinenak"

3. irudia. *Bartan batzoki'ko ereserkia* (NEAN, Irigarai funtsa, 135896 kaxa, 4. karpetatxoa, 26. zk.).

3. karpetatxoa

3. Versos impresos «Zaraitzun Espartzako Eguberri Kantua» (1).
4. Notas manuscritas con vocabulario euskera-castellano (2). *A. Irigarairena. Esamoldeak.*
5. Libreta con notas manuscritas de vocabulario (1). *Testu erlijiosoa. Larrekorena.*
6. Pruebas de imprenta y correcciones del artículo «Euskara antiguo y moderno» de A. Irigarai (8).
7. Pruebas de imprenta y correcciones del artículo «Mentalidad del campesino vasco» de Julio Caro Baroja y Angel Irigarai (20-22).
8. Ejemplar impreso de «Elizondoko Bestak» de 1879 (1).
9. Folios con el borrador manuscrito del artículo «Folk-lore Baztanés» (4). *A. Irigarairena. Argitaratua (Irigarai, 1933).*
10. Ejemplar impreso de «El restaurador» correspondiente al martes 21 de octubre de 1823 (1).
11. Separata impresa del «Ibañeta'ko mendietatik» de Paulo Fermin Irigaray (1950). *Katalogoaren 1. zatian aipatua (Santazilia, 2022).*
12. Propuesta de constitución de la «Sociedad de Amigos del Vascuence» hecha al Presidente de la Diputación Foral (1955). *Presidentearekiko elkarrizketan aipatu beharreko puntuak, barne antolakuntza, zereginak eta eskariaren sinatzaileak ere ageri dira.*
13. Fotografías de texto manuscrito sobre una descripción de Navarra (6 fotografías). *Gaztelaniaz. Joseph Hortari egotzitako Nafarroako 1724ko mapa batean ageri den deskribapena. Nafarroaren euskalduntasuna aipatzen da, tonu apologetikoan. Aingeru Irigaraik Príncipe de Vianan argitaratua (Irigarai, 1982). Orobat, A. Irigarairen ohar batean esaten da Zabala h-aren eta bere kontra agertu dela eta gauza faltsu batzuk esan direla.*
14. Ejemplar manuscrito del «Diccionario de Zabala de Lesaca» (de la A a la O). *Aingeru Irigarairen jabetzakoa. Gaztelania-euskara. XX. m.*
15. Microfilm 35 mm. con copia del «Catecismo de Elizalde» (1734) propiedad de la familia Irigaray. *Elizalderen dotrinaren ale originala ere funts honetan dago (Santazilia, 2022).*
16. Nota manuscrita (1) con referencias de artículos de 1879-1881. *A. Irigarairena.*

4. karpetatxoa

17. Borrador manuscrito de carta remitida a Ms. Saint Pierre el 24/08/1948 (5 cuartillas). *Larrekorena. Laffitteri ere zuzentzen zaio. Herria agerkaria bezalako bat Nafarroan sortzeaz, eta Eusko Ikaskuntzak Nafarroan egin dezakeen lanaz, euskara ez galtzeko. Eskualtzaleen Biltzarrak egin bezala, ume euskaldunei sariak emateaz.*
18. Notas manuscritas de un discurso sobre la situación del euskera (7 cuartillas). *Larrekorena. Euskaltzaindian egindako hitzaldia. Euskaldun letradunen jarreraz, euskara zabaltzeaz.*
19. Cuadernillo 215 x 150 mm. con notas del «Uskarazco zuhur-hitzak» de Oihenart, de la segunda edición (Burdeos, 1847). Realizado en 1927. *Aingeru Irigarairen oharra.*

5. karpetatxoa

20. Folios mecanografiados «Kristiñau Dotriñea» (10 folios). *Arantzazuko bibliotekaren zigilua du. Itzulpen bat da, Bizkaiko hizkeran.*
21. Fragmentos de edición mecanografiada (multicopista) de «Saindutasunaz» y «Erlisione Sanduari». *Lehen bi sermoien izenburuak baizik ez dira aipatu, baina gehiago dira. Ipar Euskal Herriko mintzoa. Lapurdikoa, apika.*
22. Textos mecanografiados con transcripción de sermones en euskera (Dominica 3.^a de Cuaresma, 5 folios, y Dominica 13 después de Pentecostés, 4 folios). *Zildoeko Perutxeneko sermoi batzuen transkripzioa. Ik. 1. kaxa, 1., 2., eta 3. karpetatxoak, eta Santazilia (prentsan).*
23. Separata «El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828», de Pedro Díez de Ulzurrun (1960). *Katalogoaren 1. zatian aipatua (Santazilia, 2022).*
24. Nota manuscrita sobre Fagoaga y otros. *Hainbat kantu aipatzen dira. Ifrentzuan, Euskararen Adiskideak elkarteak egindako poesia leihaketaren deialdia (1933).*
25. Fragmentos de papel antiguo, en blanco y de distintos tamaños.

4. ERREFERENTZIAK

- Azkue, R. M. (1928). *Aezkera edo Petiriberro-ingurueta mintzaera (1928)*. Editorial Vasca.
- Bidador, J. M. (2016). Pablo Fermin Irigarai Larreko: Nafarroako euskal kazetaritzaren aitagoia. *PV*, 264, 315-339.
- Bouda, K. (1973). Berichtigungen zu einer Abhanelung über baskische Syntax. *FLV*, 13, 21-38.
- Camino, I. (1992a). *Pablo Fermin Irigarai Larreko. Lekukotasuna*. Euskal Editoreen Elkartea.
- Camino, I. (1992b). *Pablo Fermin Irigarai Larreko. Nafarroatik*. Euskal Editoreen Elkartea.
- Camino, I. (2012). Bi testu llabur Aezkoa eta Zuberoako: Garralda (1828) & Larraine (1817). *FLV*, 114, 61-72.
- Diez de Ulzurrun, P. (1960). El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828. *Euskera*, 5, 377-403.
- Larreko [Fermin Irigarai]. (1926). Nafarroako erranerak (85.-96. or.). In *Euskal egunetako itzaldiak*. Gaubeka.
- Larreko [Fermin Irigarai]. (1993). *Gerla urte gezur urte. Iruñea 1936-1940, isiltasunean mintzo*. Pamiela.
- Idoate, F. (1975). Un proceso de brujería en Burgui. *CEEN*, 20, 225-276.
- Irigarai, A. (1926). Lakoizketa apez jauna eta euskera (61.-68. or.). In *Euskal egunetako itzaldiak*. Gaubeka.
- Irigarai, A. (1933). Dos documentos en lengua vasca. *Cultura Navarra*, 5, 195-197.
- Irigarai, A. (1933). Folk-lore Baztanés. *Yakintza*, 2, 130-135.
- Irigarai, A. (1963). ¿Se trata de la Doctrina de Sancho de Elso? *PV*, 92-93, 249-254.
- Irigarai, A. (1982). Breve historia inédita de Navarra. *PV*, 165, 263-272.

- Monteano, P. (2022). *De cómo España conquistó a Navarra y la retuvo*. Mintzoa.
- Santazilia, E. (2022). Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (I. dokumentu argitaratuak). *FLV*, 133, 229-257. <https://doi.org/10.35462/flv133.9>
- Santazilia, E. (prentsan). Zildoizko Perutxeneko euskal predikuak (XIX. m.): aurkezpena eta ikerketaren lehen emaitzak. *ASJU*. <https://doi.org/10.1387/asju.23959>
- Satrustegi, J. M. (1979). Tres cartas vascas de 1622. *FLV*, 31, 59-70.
- Xarritton, P. et al. (2005). Pierre Lafitten gutundegia. *Euskera*, 50(1), 211-274.